



MAREAren aurkezpena, testuingurua eta helburuak

MAREA «Euskal Atlantiko itsasbazterreko arriskuekiko erabakietarako laguntza eta modelizazioa» mugaz haraindiko ikerketa-proiektu bat da, euskal itsasertzean izaten diren ekaitzei buruzko jakintza hobetzeko helburua duena, betiere itsasbazterra urpean geratzeko eta higitzeko arriskuen prebentzioari begira. Horretarako, alerta-tresna berritzaileak ezarriko ditu.

MAREako kideek bereizmen handiko modelizazio digital eta estatistikoko tresnak garatu nahi dituzte, muturreko olatuen indarrei eta horiek eragindako ur-mailei zein ekaitzek mugitutako jalkin-bolumenei tokian aurre hartzeko.

Jakintza horiei esker, itsasertzeko arriskuen prebentzio- eta kudeaketa-politika publikoak hobeto koordinatu ahal izango dira, baita krisi-dispositiboak eta babes-bitartekoen ezarpena optimizatu ere. Horrez gain, lantegiak antolatuko dira politika publikoetan «arriskuaren kultura» biltzeko.

Ikerketak 3 urtez egingo dira eta POCTEFA Europako funtsen bidez finantzatuko dira.

Koordinazioa eta zuzendaritza

Littoral Basque Zientzia Intereseko Elkartek (AIC), Euskal Hirigune Elkargoaren (CAPB) laguntzaz, kide taldea koordinatuko du, eta, horrez gain, proiektuaren iraunaldian —3 urte— mugaz haraindiko mailan egin beharreko operazioak gidatuko ditu. Batzorde teknikoak aldizka bilduko dira, eta honako eginkizun hauek beteko dituzte:

- Proiektuaren ikerketa-ardatz guztiak denboran koordinatu.
- Lehorrean zein itsasoan neurketak egiteko kanpainak planifikatu (itsas zabalean buiak eta hondartzetan sentsoreak jarri, mareografoak eta bideo-kamerak instalatu, neurketa geofisiko eta topobatimetrikoak...).
- Informazioak eta datuak koordinatu eta kide guztiei helarazi.
- Ezarritako metodologiek kudeatzaileen azken premiei erantzuten dietela ziurtatu, baita itsasbazterrean antzeko arazoak dituzten beste lurralde batzuetan erabiltzeko aukera eman ere.
- Erabiltzaileen segurtasuna antolatu hondartzetan egiten diren neurketa-kanpainetan.

Aldi berean, gidaritza-batzordeak eta mintegiak deituko dira. Horien helburua da zientzia-aurrerapenak aurkeztea eta MAREAk lortutako emaitzak Euskadiko eta Akitaniako itsasbazterra higitzeko eta urpean geratzeko arriskuen prebentzioan dihardutenei nahiz POCTEFAren lantaldeei helaraztea.

Hainbat prentsaurreko egingo dira tokiko biztanleriari MAREAren helburuen berri emateko eta neurketa-kanpainak egin behar direnean aditzera emateko.

Communauté
D'AGGLOMERATION
PAYS BASQUE

EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa

azti
tecnalia

GIS
LITTORAL
BASQUE

suez
rivages
PRO TECH

UNIVERSITÉ
DE PAU ET DES
PAYS DE L'ADOUR


Géosciences pour une Terre durable
brgm

euskalmet
agencia vasca de meteorologia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

CASAGEC
INGENIERIE

Gune pilotuak eta aintzat hartutako problematikak



Aurrekontua eta egutegia

Proiektuaren kostu osoa 1.545.035 € da, eta FEDER funtsen bidezko % 65eko diru-laguntza du (1.004.273 €).

2016 - 2019 aurrekontuak, eurotan		FEDER
Euskal Kosta Aturri Hirigune Elkargoa	261.572	170.021,8
Hego Lapurdiko Hirigune Elkargoa	86.202,95	56.031,92
Rivages Pro Tech	344.522,62	223.939,61
Azti Tecnalía	399.265	259.522
UPPA	213.473,59	138.757,83
Euskalmet DAEM	240.000	156.000
GUZTIRA	1.545.035	1.004.273